



## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2019ko EKAINAREN 4ko BILKURAREN AKTA.**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Lehendakaritzako eraikina, Nafarroa kalea 2, Gasteiz), 2019ko ekainaren 4ko 11:00etan, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauek bertaratu direlarik:

- Lehendakaria: Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziaren eta haren Kontseilu Errektorearen lehendakaria, Jaurlaritzako Lehendakariaren ordezkotzaz (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).
- Kontseilukidea: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren izenean.
- Kontseilukidea: Ana Isabel Oregi Bastarrika andrea, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta berdintasun Batzordearen presidentea, Eusko Jaurlaritzaren izenean.
- Kontseilukidea: Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren izenean.
- Kontseilukidea: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Kontseilukidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ezin etorria adierazi dutenak:

- Kontseilukidea: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantziario Sanitarioko sailburuordea, Osasun Sailaren izenean.
- Kontseilukidea: Alberto Alberdi Larizgoitia jauna, Ekonomia, Finantzak eta Aurrekontuetako sailburuordea, Ogasun eta Ekonomia Sailaren izenean.
- Kontseilukidea: Irma Basterra Ugarriza andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren izenean.
- Kontseilukidea: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren izenean.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Blanca Pérez Jiménez andrea –GLEAren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna– eta Ana Isabel Rojo Gonzalez andrea –GLEAren Aholkularitza Juridikoaren arduraduna– bertaratu dira.

## Sarrera

GLEAren eta haren Kontseilu Errektorearen lehendakariak hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria emateko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. Martxoaren 7an egindako aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2018ko urteko kontuak onartzea.
3. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea
4. Hitzarmena Euskalfondoarekin Platformako kide egiteko
5. Ekintza Humanitarioari buruzko Dekretua
6. Galde-eskeak

Lehendakariak eman dio hasiera bilkurari eta jakinarazi du aipatutako dokumentazio guztia aldeaz aurretik bidali zaiola Kontseilu Errektore honi.

### 1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2019ko martxoaren 7ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### 2. 2018ko urteko kontuak onartzea

Gai hau lantzeko, Cristina Ocio andrea, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoko auditora, gonbidatu da. Kontseiluko kideek dagozkion dokumentuak eskuragarri eduki dituzte behar izan duten denboraz GLEAren 2018ko urteko kontuen edukia, Kudeaketa Txostenaren edukia eta Aurrekontua betetzeari eta Legezkotasunari buruzko Memoriaren edukia behar bezala ezagutzeko. Auditoretza-txostenaren zirriborroa ere badute.

Aurkezpena egin ostean eta Ocio andreak iruzkinak egin eta bertaraturen batek egindako galderei erantzun ondoren, gaia bozkatu egin da eta emaitza hau izan da: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren urteko kontuak, Kudeaketa Txostena eta Aurrekontua betetzeari eta legezkotasunari buruzko 2018ko ekitaldiko Memoria onartu dira bertaratu diren 4 pertsonaren aldeko botoekin – Jonan Fernández, Ana Oregi, Monika Hernando eta Paul Ortega– eta hiru abstentziorekin –Ohiana Etxebarrieta, Sofía Marroquín eta Josu Urrutia–.

### **3. Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea**

Paul Ortegak Garabideri emandako zuzeneko dirulaguntzaren alderdi teknikoak aurkeztu ditu; hasiera batean dirulaguntza izendun gisa onartu zen. Dirulaguntza hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen 2018ko urriaren 15eko bilkuran eta 2019rako aurrekontu-aurreproiektuan sartu zen, baina aurreproiektua onartu ez zenez, berriro ekarri da Kontseilu Errektore honetara eta zuzeneko dirulaguntza bihurtzea proposatzen da.

CERF funtsa ekintza humanitariorako zuzeneko dirulaguntza bat da, zertan datzan azaltzen du eta 100.000 eurokoa da.

Zuzeneko dirulaguntza horiei esker, 163.300 euroko zenbatekoa eman ahal izango zaio Garabideren ekimenari eta Nazio Batuetako Larrialdietan Erantzuteko Funtsa Zentralari (CERF) 100.000 euroko ekarpena egin ahal izango zaio. Proposatzen da proposatutako zuzeneko dirulaguntzak onartzea dirulaguntza horiek izapidetzen jarraitzeko eta Gobernu Kontseiluan aurkezteko berak onar ditzan.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola dagokion izapidetzeari hasiera eman ahal izateko zuzeneko emakidarako proposamenak onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### **4. Hitzarmena Euskal Fondoarekin PLATFORMAko kide egiteko**

Sinatu behar den akordioaren alderdi teknikoak azaldu ditu Ana Rojok. Akordio hori GLEAK Euskal Fondoarekin sinatu duen hitzarmena da bi erakundeen arteko harremanak arautzeko PLATFORMA osatzen duten alderdiak diren aldetik, Euskadi Basque Countryko kide izanik.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### **5. Ekintza Humanitarioari buruzko Dekretua onartzea**

Dekretua izapidetzeko gauzatu den prozedurari buruzko informazioa eman du lehendakariak eta jakinarazi du, Dekretua gaur onartzen denean, ekainaren 18ko Gobernu Kontseiluan aurkeztuko dela Kontseilu horrek onartzeko. Ondoren, Agentziaren



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

Aholkularitza Juridikoaren arduradun Ana Rojori eman dio hitza, eta Rojo andreak

Dekretuaren berrikuntza nagusiak aurkeztu ditu. Bertaratutakoek egindako galderei erantzun ondoren, gaia bozkatu egin da eta aho batez onartu da ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen Dekretua Gobernu Kontseiluan aurkez dadin proposatzea, Kontseilu horrek onartzeko.

Halaber, Kontseilu Errektoreak berretsi du onartu duela Ekintza Humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen Dekretuaren testuan biltzen diren laguntzak onartzeko oinarrizko irizpideak kontuan hartuta.

## 6. Galde-eskeak

Gai-zerrendatik kanpo, eta informazio gisa, Blanca Pérezek izapidetu den aurrekontu-aldaketaren berri eman du. Aurrekontu-aldaketa hori aurreko Kontseilu Errektorean adostu zen eta Agentziako plantilla osoaren soldata-igoerari buruzkoa da.

Jonan Fernándezek Euskadira iristen diren migratzaileei arreta humanitaria emateko 2019ko Gertakizunetarako Planaren proposamena aurkeztu die bertaratuei.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

Ontzat emana: Jonan Fernández Erdozia  
jauna, Agentziaren eta haren Kontseilu  
Errektorearen lehendakaria, Jaurlaritzako  
Lehendakariaren ordezkotzaz  
(11/2017 Dekretua, apirilaren  
25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry  
GLEAren Kontseilu Errektore  
Zuzendariaren idazkaria